

EBAZPENA

Pasaiako Udalak 2018ko maiatzaren 29an euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza onartu zuen, besteak beste, udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabilzan erakundeentzako dirulaguntza emateko. Eta 2020ko urtarrilaren 28an VIII. titulu bat gehitu zion Pasaiako kultur-, kirol-, aisialdi-talde, enpresa edo merkataritza zein ostalaritza establezimenduen euskarazko irudi korporatiboei, webguneei eta programa informatikoei dirulaguntzak emateko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikuluan, Pasaiako Dirulaguntzen arautegi orokorraren eta dirulaguntzak emateko aipatutako Ordenantzan ezarritakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT

LEHENA.- Onartzea Pasaiako udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako 2020ko dirulaguntzen 2.deialdia, ebazpen honen eranskinean jasotako testuaren arabera.

BIGARRENA.- Kontu-hartzaileak BDNSri beharrezko dokumentazioa ematea, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara dadin. Deialdiaren testua ebazpen honen eranskin gisa jasota dago.

Pasaia, 2020ko irailaren 25a

Alkatea

Izaskun Gómez Cermeño

Idazkaria

Unai Rekondo Perez

DEIALDIA

1. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak honako ordenantza honetan jasota daude:

Pasaiako udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza.

Dirulaguntza hauek Pasaiako Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoan jasota daude, 3. kapituluan, euskara arloko dirulaguntzak atalean. 2020ko irailaren 21eko GAO.

Dirulaguntzen onuradunek, betiere, Pasaiako Udalaren Dirulaguntzen Arautegiak jasotako baldintzak bete beharko dituzte, eta, horietaz gain, Foru Ogasun, Gizarte Segurantzza eta Pasaiako Udalaren zergak eta ordainkizunak egunean dituztela egiaztatu. Betekizun horiez gain, dirulaguntza mota bakoitzarentzat zehazten diren baldintzak egiaztatu beharko dituzte.

2. Aurrekontu-kredituak

Udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabiltzan erakundeentzako dirulaguntza ondoren zehazten den aurrekontu-kredituari egotziko zaio; eta diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa honako hau da:

10,481,04,335,00 - 10000 €

Euskarazko irudi korporatiboei, webguneei eta programa informatikoei dirulaguntza, berriz, Pasaiako udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako 2020ko dirulaguntzen 1.deialdian zehaztu zen aurrekontu-kredituari egotziko zaio: 10.481.01.335.00. Atal honen gehienezko zenbatekoa 2000 €koa izango da eta 1. deialdian jasotako kopuruari egotziko zaio, hura gutxituz.

3. Dirulaguntzen xedeak eta helburuak

UDALERRIZ GAINDIKO EREMUETAN EUSKARA SUSTATZEN DABILTZAN ERAKUNDEENTZAKO DIRULAGUNTZAK

Pasaiako Udalak udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabiltzan erakundeei euskararen normalizazioan eragiten duten esparruak lantzeko dirulaguntzak eskaintzea

EUSKARAZKO IRUDI KORPORATIBOEI, WEBGUNEEI ETA PROGRAMA INFORMATIKOEI DIRULAGUNTZAK

Pasaiako kultur-, kirol-, aisialdi-talde, enpresa edo merkataritza zein ostalaritza establezimenduen euskarazko irudi korporatiboei, webguneei eta programa informatikoei dirulaguntzak eskaintzea.

4. Eskatzaileek bete beharreko baldintzak

UDALERRIZ GAINDIKO EREMUETAN EUSKARA SUSTATZEN DABILTZAN ERAKUNDEENTZAKO DIRULAGUNTZAK


- Udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzea
- Euskararen normalizazioan eragiten duten esparruak lantzea
- Eskabidea ekainaren 30a baino lehen aurkeztea

EUSKARAZKO IRUDI KORPORATIBOEI, WEBGUNEEI ETA PROGRAMA INFORMATIKOEI DIRULAGUNTZAK

- Entitatea Pasaiako udalerrian kokatua egotea.
- Udalarekiko betebeharrak (lizentziak, zergak) egunean izatea.
- Eskabidea urte guztian zehar aurkeztu ahal izango da.

5. Prozedura bideratzeko eta ebazteko organo eskuduna

Espedientea bideratzeko eskumena duen organoa hau da: EUSKARA SAILA. Espedientea

 <p>PASAIKO UDALA www.pasaia.eus</p>	<p>DEIALDIAREN EBAZPENA</p> <p>Espediente zk.: 2020WDIR0011</p> <p>2020KO EUSKARA SAILEKO DIRULAGUNTZEN 2. DEIALDIA</p>	<p>IFK/CIF P2006900A Tel. 943 344034 Luz./Ext. 916 Donibane kalea, 19 20110 Pasaia</p> <p>EUSKARA euskara@pasaia.net</p> <p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);">T680700</p>
---	--	--

bideratzean txosten hauek jasoko dira: dagokion informazio-batzordearen txostena eta dagokion arloko teknikari eskudunaren txostena, ebaluazioa edo ebazpen-proposamena.

Ebazpena emateko eskumena duen organoa Tokiko Gobernu Batzarra da.

6. Eskaerekin aurkeztu beharreko dokumentazioa

UDALERRIZ GAINDIKO EREMUETAN EUSKARA SUSTATZEN DABILTZAN
ERAKUNDEENTZAKO DIRULAGUNTZAK

- Eskaera gutuna edo txostena
- Foru Ogasuneko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak eguneratuta dituela egiaztatzen dituzten agiriak.

EUSKARAZKO IRUDI KORPORATIBOEI, WEBGUNEEI ETA PROGRAMA INFORMATIKOEI
DIRULAGUNTZAK

- Eskabide orria, behar bezala beteta.
- Baldin eta dirulaguntzaren eskabidean eskatzaileak ematen ez badio Udalari egiaztapen hauek ofizioz egiteko baimena, Foru Ogasuneko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak eguneratuta dituela egiaztatzen dituzten agiriak.
- Faktura
- Irudi korporatiboaren, webgunearen edo programa informatikoaren argazkia

7. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea

Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea 3 hilabetekoa da.

Gehienezko epea ebazpenik jakinarazi gabe igarotzen bada, interesdunek ulertu ahal izango dute dirulaguntza emateko eskaera isiltasun administratiboz ezetsi dela.

8. Administrazio-bidearen amaiera

Dirulaguntza ebazteko egintzak amaiera ematen dio administrazio bideari.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatzen denarekin bat, ebazpen horren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakioke Udal honetako Tokiko Gobernu Batzordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen denetik kontaktzen hasita. Edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 19/2013 Legearen arabera.

9. Eskaeren balorazio irizpideak.

Ikusi: Pasaiaiko udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza

<http://www.pasaia.eus/documents/90521/3677416/Ordenantza-EU.pdf>

10. Jakinarazteko edo argitaratzeko bideak

Prozedura honetatik eratorritako jakinarazpenak, prozeduraren ebazpena barne, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS), Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal egoitza elektronikoan (www.pasaia.eus) argitaratuko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1. artikuluan ezarritakoarekin bat.